

Euskadin 2030ean elikadura sistema iraunkorra izateko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia

Euskadiko Fit4Food2030
Politiken Laborategiko emaitzak

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Towards **FOOD 2030**
future-proofing
the European food systems
through Research & Innovation

EUSKADIN 2030EAN ELIKADURA SISTEMA IRAUNKORRA IZATEKO IKERKETA ETA BERRIKUNTZA ESTRATEGIA

2021EKO MAIATZA

Egileak:

Goiuri Alberdi Aresti [Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea], eta
Mirene Begiristain Zubillaga [Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea]

Lankidetzeta eta errebisioa:

Isabel Alvarez Vispo (Red Urgenci)

Itzulpena:

Maribi Ugarteburu Markuerkiaga.

Diseinua eta Maketazioa:

TaPuntu.eus

Finantziakzioa:

Europar Batasuna. Proiektu honek Europar Batasuneko Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren dirulaguntza jaso du 774088 zk.ko beka hitzarmenaren arabera.


Euskadin 2030ean elikadura sistema iraunkorra izateko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia

eISBN: 978-84-1319-336-6

Doako hedapen digitalerako dokumentua. Banaketa komertzialerako inprimatzeko, UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuaren baimena behar da.

Bibliografiari dagokionez, honela adieraziko da liburuki hau:

Alberdi G., Alvarez I. & Begiristain M. (2021) *Euskadin 2030ean elikadura sistema iraunkorra izateko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia*. Universidad del País Vasco- Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).



Liburu hau Aitortza - Ez komertziala lizentziapean banatzen da, hemen kontsulta daitekeena:
http://creativecommons.org/choose/?Lang=es_ES.

Baimenduta dago argitalpen honetako edukiak kopiatzea, betiere jatorria aipatzen bada eta helburu komertzialik gabe egiten bada.



Aurkibidea

01. Sarrera	5
02. Aurrekariak eta testuingurua	9
2.1. Elikadura sistemaren egoera globala	10
2.2. Elikadura sistema Euskadin	14
2.3. COVID-19 testuingurua eta Agroekologia	18
03. Fit4Food2030 proiektua eta bere garapena Euskadin	23
3.1. Fit4Food2030 proiektua	24
3.2. Euskadiko Politiken Laborategia – Fit4Food2030	26
04. Euskadin 2030erako elikadura sistema iraunkorra izateko erronken definizio kolektiboa	35
05. Euskal elikadura sistemaren erronketan sakontzen: Abaraska.....	39
06. Euskadin 2030erako elikadura sistema iraunkorra izateko Ikerketa eta Berrikuntzako ildo estrategikoak eta ekintza planak.	43
07. Azken hausnarketak.....	53
08. Eranskinak	57

01. Sarrera

Horizonte Europa¹ markoak identifikatutako erronken artean, lurzoruen osasuna eta elikagaiak dira misioaren arloetako bi, eta horiekin batera, ingurumenari, baliabideei eta elikadurari loturiko nekazaritza. Abiapuntu gisa ezartzen den iraunkortasun ikuspegia garatzeko zutarrak dira guztiak. Horregatik, koordinazio lan taldeak **Fit4Food2030**² proiektuan parte hartzea aukera on bezala hartu izan du, Europaren baitan euskal elikadura sistema iraunkorrerako ikerketa eta berrikuntza estrategiak zehaztu ahal izateko.

Modu berean, garrantzitsutzat jotzen Euskal Autonomia Erkidegoa proiektu europar honetan izatea, beste herrialde batzuekin eta hango politika publikoen laborategiekin batera (**Policy Labs**), horrela EAEko eta nazioarteko eragileen arteko elkarlana elikatu ahal izateko.

Gainera, politiken laborategi hau sortzeak elikadurarekin lotutako politiken arteko koherentzia helburu zehaztutan ere aurrera egitea erraztuko du; hala nola osasuna, ingurumen hezkuntza, berdintasuna, gobernantza... aurrean ditugun erronka garrantzitsu eta presazkoen aurrean.

Oro har, proiektu honen hasieran aurreikusitako espektatibak bete egin dira, helburu nagusia zehaztu ahal izan baitugu: **2030erako Euskadin elikadura sistema iraunkorra lortzeko Ikerketa eta Berrikuntza (I+B) proposamen bateratua definitzea.**

Fit4Food2030 Euskadiko Politiken Laborategia izan denaren prozesuaren baitan, 2019ko urritik 2020ko urrira, parte hartu duten antolakundearen konpromisoa sendoa izan da laborategiarekiko, lehen saiotik azkenengoraino modu oso jarraituan parte hartuz. **Izan ere, eta Covid-19ak eragindako pandemia egoeran izanik ere, laborategia arrakastaz bukatu da,**

Euskal Herrian 2030erako elikadura sistema iraunkorra lortzeko I+B estrategiaren proposamen partekatua landu baita.

Hasierako helburuak errespetatuz, proposamenean aurrera egin ahal izateko gakoa izan da euskal elikadura sistemari lotutako askotariko kolektiboen parte-hartzea.

Kolektibo batzuen kasuan saioetan inplikatzeko zailagoa izan den arren (politiken sorkuntza eta inplementazioarekin lotutako administrazio publikoa, nekazal sindikatuak eta gizarte zibil askotarikoa), pozten gaitu euskal nekazal sindikatu handiena laborategiko hiru saioetatik bira joan ahal izana (ENBA), baita administrazio publikoari lotutako ikerketa antolakundeak ere (Neiker, Erika, Ihobe). Era berean, gizarte zibilaren parte-hartzeari buruz, hiru erakundek esku hartu zuten (Bizilur, Bidezko Elikadura eta D'likatuz) euren ekarpenak giltzarri izanik; baita Ekoizpen Orduña ere, akonpainamendu eta dinamizazio zerbitzu agroekologikoa, udalerrri mailako politika publikoak paperetik errealitatera eramaten erreferentea dena Euskadin zein hemendik kanpo. Gainera, politiken laborategiko kideen artean EAEko ikerketa eta akademia arloetako hainbat erakunde publiko eta pribatutako partaideak aritu dira (EHU/UPV, Orkestra, Leartiker), baita arlo pribatuko aholkularitza agrosozialeko enpresak edota Elikadura Clusterra, zeinak laborategiaren lehen fasean parte hartu baizuen.

Gure ustez, **eraiki den proposamenaren potentzialtasuna izaera sistemikoan datza eta, mugak muga, elikadura sistema osoari lotutako antolakunde garrantzitsuek parte hartu izana ere gakoa da; ekoizpenetik kontsumoraino, ikerketarekin eta administrazio publikoarekin lotutako entitateak barne, ikuspuntuaren aniztasunarekin.** Horrela, bada, lan hau

¹ https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/research_and_innovation/strategy_on_research_and_innovation/presentations/horizon_europe_es_invertir_para_dar_forma_a_nuestro_futuro.pdf

² Proiektu honek Europar Batasunaren Horizonte 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren finantziaketa jaso du, 774088 zenbakiko diru-laguntza hitzarmenaren bidez.

beharrezkoa den elikadura sistemaren bisio osoarekin egin dela uste dugu, beti hobetu badaiteke ere.

Parte hartu duten antolakundeekin prozesuaren azken ebaluazioa egiterakoan, %75ek politiken laborategi edo plataforma honekin jarraitzeko interes handia edo oso handia dutela adierazi dute. Gainera, laborategian eraiki diren harremanak modu positiboan baloratu dituzte, baita iraunkortasunaren ikuspegia eta erabilitako metodologiak ere.

Euskadiko Politiken Laborategian (EPL) lortutako emaitzei dagokionez, alde zuzeneko esan Fit4Food2030 proiektuaren Think-Tank-ak adierazitakoarekin bat datozela hemendik eta 2030era elikadura sistemari buruzko I+B-n estrategia europarrak egin beharreko paradigma aldatzeko buruz. Horrek, euskal laborategian lortutako emaitzak berretsi eta ziurtasunez janzten ditu.

Txosten honetan zehatz azalduko dugun bezala, laburbilduz esan dezakegu EPL-ren emaitzak lau arlo nagusiko ekintza berritzaile eta esperimentalen inguruan sortu direla. Honako arloak, hain zuzen: hezkuntza, gobernantza, legegintza, eta nekazaritza eta elikadura sektoreetako lanbideen balorizazioa eta sarbidea.

Laborategiaren ondorioak eta emaitzak modu kolektiboan sortutako balio garrantzitsua dutela uste dugu, eta zalantzarik gabe, Euskadin proiektuak eta estrategiak definitzeko prozesuetan eragina izan beharko luketeela.

Txosten honen helburua da EPL-ren bileretan lortutako emaitza guztiak jasotzea. Bertan zehazten dira 2030erako Euskadin elikadura sistema iraunkorra izateko gainditu beharreko erronkak, eta hainbat arlotan horretara bideratu beharreko pausoak.

Gainera, txosten hau *Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia* egiturarekin aurkezten da, gure komunitateko hainbat eremutan eragina lortzeko helburuarekin. Horrela, irismena lortu

nahi da hainbat publikorenganaino: politika publikoen garapenerako arduradunak, akademia eta agentzia teknologikoak, agentzia lokalak, nekazaritza sektoreko eragileak eta gizarte zibila.

Espero dugu emaitzek eragina izatea Eusko Jaurlaritzatik eta Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren Kontseilutik garatu beharreko etorkizuneko politketan eta estrategietan. Eraberean, esperodugudokumentu hau baliagarria izatea akademiarentzat eta Euskadiko I+B agentzientzat, estrategia honekin bat datozen ikerketa eta berrikuntza proiektuetara bideratzeko haien ahaleginaren zati bat. Udalerrri mailako agentziek, tokiko ekintzen inplementaziorako zutarri bezala, estrategia honetako zati garrantzitsua dira, eta bertan argitu ahal izango dituzte tokian tokigaratu beharreko proiektuak, gure komunitateetan elikadura osasungarria eta iraunkorra lortze aldera. Eta espero dugu gizarte zibilak, hain eremu zabala izanik ere, ahal izango duela aintzat hartu nola ahal den lagundu norbanako bezala eta maila kolektiboan, norbere eragin eremutik, iraunkortasuneranzko bide honetan.

Uste dugu estrategia honek, elikadura sistemaren baitako eragile giltzarrien jakintzetatik elkarlanean sortua izanik, bidea irekiko duela hain presaz eta denon artean denontzako garatzeko premia dugun elikadura sistema iraunkorra lortzeko. **Hemen biltzen den strategiak ipar orratz gisa balio diezaguke, hurrengo urteetan ikerketan eta berrikuntzan arlo publikotik zein pribatutik garatuko diren ekintzak aztertu eta ebaluatu ahal izateko.**

Gure eskerrik beroena prozesu honetan bakoitzak bere lekutik parte hartu eta ekarpena egin duzuen antolakunde eta persona guztiei. Hau partekatzea plazer handia izan da. Jarraituko dugu elkar aurkitzen.

Fit4Food2030 Euskadiko Politiken Laborategiko koordinazio taldea, 2021eko martxoan.

02. Aurrekariak eta testuingurua

2.1. Elikadura sistemaren egoera globala

Egungo elikadura sistemek norabide aldaketa drastikoa behar dute, aurrean dituzten erronkak larriak, globalak, sistemikoak eta elkarri lotuak baitira. Giza ekintzen eta gure bizimoduaren ondorio gisa azaltzen dira ingurumen arloko kalteak, sozio-ekonomikoak, kulturalak, eta orain inoiz baino gehiago, osasunari dagozkion kalteak ere bai. Egoera larritasun gorenekoa da, naturaren mugak gainditzen ari baikara, egungo zibilizazioaren garapena³ bera arriskuan jarritz. Larritasuna azaldu egin behar da, konpondu ahal izateko. Inflexio puntu batean gaude, hil ala biziko bidegurutze batean, oraindik ere klima aldaketaren aurkako borrokan eragin positiboa eduki dezakegun unean, hain zuzen.

IPES-Food-en arabera, Europak urtero 970 miloi tona lurzoru galtzen du, Europar Batasuneko (EB) lurraldearen %11 baino gehiago kaltetzen ari den higaduraren ondorioz. Nitrogenoz egindako pestizida eta ongarri kimikoek landare eta intsektuengan orain arte sekula ezagutu gabeko kalteak eragiten ari dira. Eragindako bioaniztasun galerak arriskuan jartzen ditu hainbat ingurumen zerbitzu, hainbat elikagairen landaketen polinizazioa barne, etorkizuneko mozkinak mehatxatuz, eta urtero munduko BPGaren %3 inguruko kostua eraginez. Mundu mailan, elikadura eta nekazaritza sistemek negutegi efektuko gas isurketen %30 sortzen dute⁴.

EBk urtero abereentzako 22 milioi tona sojako elikagai inportatzen ditu, baita deforestazioa salatu izan den herrialdeetatik ere (deforestazioa da mundu mailako CO₂ isurketen %20 eragiten duena). Herrialde horietan, gainera, derrigortutako lurralde husteak, plagizidek eragindako pozoitzeak eta giza eskubideen urraketak salatu dira, esportaziorako landaketa intentsiboen eremuetan. EBren inportazioak ia laurden bat dira mundu mailako soja, behiki

³ Science, 2015: Vol. 347, Issue 6223, 1259855. DOI: 10.1126/science.1259855

⁴ IPES-Food (2019) Towards a common food policy for the European Union. http://www.ipes-food.org/_img/upload/files/CFP_FullReport.pdf

okela, larru eta tropikoetan modu ilegalean basoak jota lortzen den palma olioari dagokionez. EBean kontsumitzen dugun arrain eta itsaskien erdia ere ez dugu hornitzen EB bertako ekoizpenarekin; eta horrek esan nahi du Europak sekulako eragina duela mundu mailako itsas baliabideen agorpenean. Beste hitz batzuekin esanda, EB bere elikadura sistemen ingurumen aztarna azpikontratatzan ari da, gero eta gehiago. Kalte hauek are larriago egiten ditu EBean urtero ekoizten diren elikagaien %20 inguru alperrik galtzeak⁴.

Elikadura sistemen ingurumen kalteek giza osasuna mehatxatzen dute hainbat modutan. Antimikrobianoekiko erresistentziak, sistema endokrinoa eraldatzen duten gai kimikoen presentziak elikagaietan, elikagaien ontziratzeak edota nekazaritzak eragindako ur iturrien kutsaketak osasunarentzako kalteak eragiten dituzte^{4,5}.

Ebidentziak argi uzten du gaur egungo elikadura sistemek populazioaren osasunarengan eragin kaltegarriak dituztela. Europako populazioaren %50 baino gehiagok gehiegizko pisua du, eta obesitatea du %20k. Europan gaixotasun arriskuen eta heriotzen eragile handiena da dieta ez-osasungarria, hamar heriotzatik zazpiren arrazoiek dietarekin lotura dute-eta; batik bat populazio pobretuenen artean eragin larriena izanik⁶, eta horietan, emakumeengan.

Maila sozio-ekonomikoan, lan baldintza txarrak eta bizi baliabideekiko presioak antzematen dira elikadura sistema guztietan, kontsolidatze azkarren eta botere desoreka handien testuinguruan. Gaur egungo elikadura sistemak eta gaur egungo politikek agroelikadura sistema osoa korporazio gutxi eta oso handien esku izatea eragiten dute (industria agrokimikotik

hasi eta elikagaien txikizkako salmentaraino)⁷. Eragile nagusi hauek hornikuntza kateetan baldintzak eta prezioak estutu ahal izan dituzte. Nekazariak ari dira, modu berezian, prezio altua ordaintzen: EBeko elikagaien kateko balioaren baitan nekazaritzari bideratutako atala 1995ean zen %31tik 2018ko %21era murriztu zen. Eta bitartean, nekazariak aurre egin behar izan zioten insumoen kostuaren %40ko igoerari 2000 eta 2010 artean. 2003tik 2013ra 4 nekazal ustiapenetik 1 desagertu egin zen Europako paisaiatik. Bitartean, urtero 100.000 nekazaritzako lur hektarea galtzen da EBean, hirien eta industriaren garapena tarteko⁴.

Gaur egun nekazaritza ustiapenen %3 inguru da EBeko nekazaritza lurren %52ren jabe, eta ustiapenen %20ri ordaintzen zaio Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) baitako ordainketen %80. 2010ean, ia nekazarien erdia 55 urte baino zaharragoa zen, eta laurden bat 65 urte baino zaharragoa. Elikadura kultura tradizionalen higadurak eta hirietako bizimodu azeleratuen sorrerak elikagaien prestaketa eta kontsumoa eraldatu egin dituzte, pertsonak erabat deskonektatuz elikagaien ekoizpenetik, edota fruta eta barazkien sasoikako izaeraren ezagutzatik⁴.

Datu horietan NPB laguntzaren titularrak eta hartzaileak diren pertsonak daude batik bat, hau da, islatzen ez diren errealitateak daude. Ekoizpen txiki asko ez dira agertzen laguntzarik ez dituztelako jasotzen; eta emakume ekoizleak, gutxitan titular direnak, estatistika askoren aurrean eta aldi berean politika publikoen aurrean, oro har, ikusezinak dira.

Egun nagusi den elikadura sistemak kanpo efektu negatiboak dakartza ekoizpenetik hasi eta kontsumoraino. Baina efektu horiek ez

5 *Endocr Metab Immune Disord Drug Targets*, 2020: Vol. 20, Issue 5, pp. 633-645. DOI: 10.2174/1871530319666191022100141

6 *Sustainability Science 2018: Vol 13, Issue 6*, pp. 1505-1517. DOI: 10.1007/s11625-018-0586-x

7 Ipes-Food. Too Big to Feed. http://www.ipes-food.org/_img/upload/files/tbtf_internet_quality_spanish%281%29.pdf



dira islatzen elikagaien prezioetan, eta beraz sektore publikoak kostu handi horiek irensteko premia sortzen da, Europako diru laguntzekin sostengatutako produkzio intentsiboen bidez, baita osasunarengan sistema horrek eragiten dituen kalteak artatuz ere, eta ekosistemetan nolabaiteko oreka gordetzen saiatuz⁸. Gainera, 2015eko datuek erakusten dute dietarekin lotutako gaixotasunek hartu zutela EBean osasunean eginiko gastu publikoaren BPGaren %7,8; osasun gastua izanik gobernuen partida handienetakoa eta gehien hazi denetakoa⁹.

Egungo politika publikoak ez dira lortzen ari elikadura sistemen erronka sakon eta elkarloturikoei modu egokian eusterik. Politika publikoetatik orain arte gauzatutako soluzioek gure dependentzia handitu egin dute nekazaritza eta elikagai ekoizpenerako eredu oso espezializatu, industrializatu, finantzarizatu, estandarizatu eta esportaziora bideratutakoarekiko.

Lehentasuna ematen zaie, oraindik ere, egungo sistemen logika ezbaian jarri gabe ezarri daitezkeen berrikuntza teknologikoei, berrikuntzaren begirada mugatu batetik, eta soluzio horiek iraunkortasun eza berresten dute, monokultiboan eta mundu mailako kateetan oinarritutako eskala handiko ekoizpenari aurre egin beharrean.

Politiken arteko arrakalak eta kontraesanak dira araua, ez salbuespena. *Status quo*-a are eta gehiago trinkotzen dute epe motzeko ziklo politikoek, epe motzeko irtentze ez-

eraginkorrak lehenesten dituztenak, eta ezer ez egitearen kostuak hurrengo belaunaldiengan uztea dakartenak. Askotan etika zalantzarria erabiltzen da, ekosistemetan eta osasunean eragina izango duten gaurko ekintzen biktimak ia jaio ez direnean, eta horrek zaildu egingo du erantzukizunak eskatzea¹⁰.


Testuinguru politikoan eta elikadura sistemen kontakizunean giza eskubideen ikuspeirik ez egotea esanguratsua da, non elikadura eskubidearen ikusezintasuna gero eta handiagoa den. Ikuspegi hori funtsezkoa da politika publikoak egitean, izan ere, gobernuen erantzukizunak ezartzen ditu elikadura eta nutrizio egokiak eskuratze aldera. Hortik urrun, elikadura kateez eta horietan elkarrengaitzat duten agente desberdinez hitz egiten duten formulak ezartzen dira. Interes anitzeko planteamendu batean, bakoitzaren eginkizuna eta erantzukizuna oso desberdinak direla ez da kontuan hartzen; korporazioen interesak norbanakoen eskubideekin parekatzen direlarik.

Agentzia erregulatzaileen eta administrazio publikoaren kooptazioa interes orokorretik at dauden bestelako interesen aldetik, etengabeko arazo bihurtu da elikadura sistemetan. Zenbat eta zatikatuago bihurtu den elikadura sistemaren gobernantza, hainbat eta errazago ahal izan dute nagusi diren aktoreek haien boterea ezarri politiken arloetan (NPB, elikadura segurtasuna, merkataritza, etab...). Agronegozioen / nekazaritzako parte interesatuen nagusitasun posizioa, Europar

8 *Can. Food Stud.* 2018: Vol. 5, Issue 3, pp. 182-207. DOI: 10.15353/cfs-rcea.v5i3.258

9 Europako Komisioa. https://ec.europa.eu/info/sites/info/files/file_import/european-semester-thematic-factsheet-health-systems_en_0.pdf

10 Malm, A. (2020). *Capital fósil*. Madrid. Capitan Swing



Batzordeko Nekazaritzako Zuzendaritza Orokorra, eta Europar Parlamentuko Nekazaritza Batzordea identifikatu dira eragile giltzarri bezala NPBn ingurumen auziei modu egokian erantzun ez izanaren orduan, eta dieta arloan Europar Batasunak izan dezakeen ekinbidea gelditzerakoan.

Politiken diseinuan parte-hartze publiko eta inklusiborako ezarritako mekanismoak argi dago motz geratu direla, eta sinbolikoak baino ez direla. Elikadura politika integratuetarantz aurrera egiteak elikadura sistemetako defizit demokratikoa konpon dezake eta boterea orekatu.

Europako Batzordetik, Europako Itun Berdearen¹¹ bidez lortu nahi da Europa izan dadin klimatikoki neutroa den lehen kontinentea, hemendik eta 2050era; honek ekarriko lukeelarik gaur egungo elikadura sistema europarrak gainditzea, hauek zor ekologikoaren bizkar irauten baitute¹². “Etxaldetik mahaira” estrategia¹³ Itun Berdearen berebiziko elementu gisa aurkezten da, elikadura sistema justua, osasungarria eta ingurumenarekiko errespetuzkoa lortze aldera. Zentzu horretan, Okzitaniako Erregio Kontseiluak¹⁴ Irizpen Proiektua aurkeztu du (NAT-VII/010) Agroekologia kokatuz paradigma giltzarri gisa elikadura sistema iraunkorreranzko trantsizioan. Proposamen hau 2021eko otsailaren 3an onartu du Europako Erregioen

Batzordeak Agroekologiari buruzko Irizpenean¹⁵. Bertan azaltzen du EBean agroekologia sustatu beharra, eta eskatzen du NPBaren erreforma horretarako “aukera bat” izan dadin. **Horrela, bada, Europako Erregioen Kontseiluak ulertzen du agroekologia dela nekazaritzaren karbono lorratza murrizten duen proposamena, bioaniztasunaren berreskurapena sustatzen duena, lurzoruen emankortasuna berrezartzen duena, uraren eta airearen kutsadura ekiditen dituen, eta etxaldean erresilientzia ekonomiko eta soziala handitzen duena. Horregatik, Europako Erregioen Batzordeak, modu positiboan baloratzen duen arren Europako Batzordeak “Etxaldetik mahaira” estrategiarekin aurkeztu duen eraldaketarako proposamena, azpimarratzen du beharrezkoa dela lege berri bat elikadura sistema iraunkorrei buruz, bere marko juridiko lotesleaz, benetako trantsizio agroekologikoari ekiteko. Halaber diote, agroekologia ezin dela garatu NPBaren ordainketak hektareako banatzen jarraituz gero, ustiapenean aktiboak diren pertsonen arabera banatu beharrean.**

Beraz, txosten honetako estrategia idazterakoan, argi geratzen da Europa mailako marko globalak duen eragina elikadura estrategia iraunkorra garatzeko politika publikoan. Era berean argi geratzen da bizi dugun une historikoa eta mundu mailako bidegurutze klimatikoa, elikadura politika amankomunaren oinarriak jartzerakoan.

11 <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:52019DC0640&from=EN>

12 *Nature* **2020: 586**, pp.671-673. DOI: 10.1038/d41586-020-02991-1

13 https://eur-lex.europa.eu/resource.html?uri=cellar:ea0f9f73-9ab2-11ea-9d2d-01aa75ed71a1.0004.02/DOC_1&format=PDF

14 <https://cor.europa.eu/EN/our-work/Pages/OpinionTimeline.aspx?opId=CDR-3137-2020>

15 Agroecologiaren Irizpena: <https://cor.europa.eu/ES/our-work/Pages/OpinionTimeline.aspx?opId=CDR-3137-2020>

2.2. Elikadura sistema Euskadin

Txosten honen helburua ez da Euskadiko elikadura sistemaren egoeraz diagnostiko zehatza egitea. Hala ere, datu batzuen laburpena egin nahi izan dugu, hemen aurkezten dugun estrategiaren marko bezala balio dezaten. Izan ere, Euskadiko elikadura sistemaren egoerak bat egiten du European eta mundu mailan dauden egoerekin.

Azken urteotan Euskadin jaitsi egin da negutegi efektuko gas isurketen portzentaje orokorra¹⁶. Lurralde hauetan, nekazaritzak, abelzaintzak eta arrantzak isurketen %3 eragiten dute¹⁷. 2019an sektore horien isurketak %22 murriztu ziren¹⁸. IHOBEn arabera, sektoreon isurketak jaisten joan dira: 2005etik hona %40, eta 1990arekin alderatuta %39. Jaitsiara hau hainbat faktorek eragin dute: abere kopuruaren jaitsierak, ongarri mineralen dosien jaitsierak, arrantza jardueraren jaitsierak eta nekazaritzako erregai kontsumoaren jaitsierak¹⁹. Datuok kontu handiz aztertu behar dira. Izan ere, Euskadira inportatutako elikagaien datuei erreparatzen badiegu, eta elikagai inportazioen datu guztiz zehatzik ez izanda ere, ikusten da kontsumitzen ditugun elikagaien %90 kanpotik datorrela. Beraz, European gertatzen den bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan ere gure aztarna ekologikoa esportatzen ari gara. Ingurumenaren aldeko elikadura sistemaren irudia islatuz, baina era berean bereziki munduaren hegoaldeko herrialdeetan sistema hau eragiten ari den kaltea estaliz.

Euskadin lurzoruen artifizializazioari buruzko datuek erakusten dute nekazaritzarako lur emankorren galera maila ikaragarria. Euskal Herriaren lurralde osoa kontuan hartuz gero, 20.900 km² dira, eta 2018ko neurketen

¹⁶ <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2020/euskadi-reduce-sus-emisiones-gases-efecto-invernadero-4-ano-ultimo-inventario/>

¹⁷ https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inventarios_gei/es_pub/adjuntos/2017r.pdf

¹⁸ <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/61845-euskadi-reduce-sus-emisiones-gases-efecto-invernadero-ano-segun-ultimo-inventario%20>

¹⁹ <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2020/euskadi-reduce-sus-emisiones-gases-efecto-invernadero-4-ano-ultimo-inventario/>

arabera, azalera honen %58 azalera naturala eta basoena da, %38 nekazaritza lurak, %4 azalera artifizializatua eta %0,5 hezeguneak eta ur azalerak. Azalera artifizializatua hirukoiztu egin da azken hiru hamarkadetan, 1990ean 37.500 hektarea izatetik 2018an 79.300 hektarea izateraino. Denbora tarte berean, zuhaitzdun azalerak eta azalera naturalak asko zabaldu dira. Artifizializazioak eta azalera natural eta zuhaitzdunen handitzeak nekazaritzarako lur azaleraren murriztea ekarri dute. Landa lurren galera handiena denbora tarte mugatuan izan zen: 2000-2006ra artean. Sei urteko tarte horretan nekazaritzarako erabiltzen ziren 69.000 hektarea galdu ziren, Hego Euskal Herrian hirigintza eta eraikuntza jarduera oso aktibo zegoenean. Horrela, Gipuzkoan galera esanguratsua gertatu zen (% -13,2), Bizkaian (% -11,0), Nafarroa Garaian (% -9,7) eta Araban (% -7,0). 2006-2018 epean, aldiz, Bizkaian izan da landa lurren galera handiena (% -5,7) eta Lapurdin (% -3,7). Bitartean, Gipuzkoan (% +3,2) eta Nafarroa Garaian (% +0,3), maila apalean bada ere, nekazaritzarako lurren berreskurapenari ekin diote. 1990/2018 epe osoa behatuz gero, nabarmentzekoak dira nekazaritza lurren galerak honako eskualde hauetan: Iruñerria, Errobi-Aturri, Zangotza, Lizarratik mendebaldera, Donostialdea, Behe Bidasoa eta Plentzia-Mungia. Euskal Euro-Hiria modu esanguratsuan artifizializatu da epe horretan, etxebizitzaren eta bestelako azpiegituren eraikuntzak metatu diren beste gune batzuetan bezala²⁰.

Euskal Autonomia Erkidegoan, elikadura sistemaren inguruko estrategia garrantzitsuenen artean nabarmendu daitezke *Regional Innovation Smart Specialization Strategy* edo RIS3²¹ eta Euskadiko Gastronomia eta Elikadura Plan Estrategikoa (gazteleraz PEGA)²², berau ere RIS3ren baitakoa izanik. PEGA da Euskadin eskualdebezaladagoen elikadura eta gastronomia

estrategia. PEGAn ekintza ildoetan elikadura sistema balio kate gisa ezaugarritua ageri da, elikadura negozio ereduetan oinarrituta, BPGaren igoerara eta turismoan oinarritutako ekonomia ereduaren baitan gastronomiaren indartzera bideratuta. Horrela, ez die aurre egiten gaur egun Euskadiko elikadura sistemetan aurkitzen ditugun beharrian eta larrialdiei, are eta gutxiago COVID-19ak eragindako krisia aintzat hartuz gero.

Gaur egun, berraztertu egin beharko litzateke Next Generation diru funts europarretatik elikagaien arloan inbertitu beharrekoa; baita 2021-2027 eperako NPB berriari lotutako Plan Estrategiko Nazionalen garapena ere. Bi plangintza hauek tramitazioan daude txosten hau garatzeko momentuan, baina kontuan hartu beharreko bi erreferentzia nagusi dira 2030erako elikadura estrategia iraunkorrerako lerketa eta Berrikuntza garatzeko orduan.

Azkenik aipatu, hurrengo udazkenean Eusko Legebiltzarrean hasierako onarpena ematea espero den Landa Garapenerako Lege berria, lege aurreproiektuaren arabera eragin zuzena izango baitu lurraldearen gobernantza eta kudeaketa mailan, Fit4Food2030ean eta Euskadiko politiken laborategian landutako ardatzetako batean, hain zuzen.

Elementu hauek eta euskal elikadura sistemaren azterketa sakonagoa aintzat hartuta ekin genion abiapuntuko diagnostiko hau lantzeari, 2019ko maiatzean Amsterdamen burututako Fit4Food2030 proiektuaren lehenengo topaketarako (1.koadroa). Zehaztu behar da, hala ere, abiapunturako diagnostiko labur hau erabili bazen ere, **Euskadin 2019ko urritik 2020ko urrira garatu den laborategiak bere abiapuntuko kontsentsua eraiki duela etorkizun iraunkorra marrazteko**, hurrengo atalean azalduko den bezala.

20 Gaindegia 2020. <https://gaindegia.eus/eu/lurraren-erabilera-euskal-herria-2019>

21 <http://ris3euskadi.eus/eu/zer-da-ris3-euskadi/>

22 https://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/pega/es_def/adjuntos/PEGA.pdf

1. koadroa: euskal elikadura sistemaren Indarguneak eta Ahulguneak.**INDARGUNEAK**

Eskualde txikia. Errazagoa da aldaketak eragitea edo inplementatzea, eta lurraldeko leku desberdinetako eragile eta ikertzaileen arteko proiektuak eraikitzea, eta horrela enpleguan eta osasun komunitarioan eragin positiboa lortzea.

Ikerketan + Berrikuntzan jakintza eta eskumena daukaten hainbat erakunde daude, elikadura sistema iraunkorreranzko aldaketaren aldeko ekosistema sorrarazten dutenak.

Gero eta kontzientzia zabalagoa gizartean elikadura sistema iraunkorragoaren alde.

Tokiko elikadura sistema agroekologikoen alde egiten duten mugimendu sozialak, tokiko proiektuak eta eragile publikoak.

Hainbat ekimen agroekologiko txiki, nagusiki tokiko mailatik eta gizarte zibilaren edo mugimendu sozialen artikulaziotik sortutakoak.

Nekazaritza munduaren eta hiriko bizimoduaren arteko lotura (ahula izan arren), lotura kultural sendoaren eraginez.

Tokiko produktuen balorizazio sendoa, handitzen ari dena.

Kontsumo eta erosketa ohitura arduratsu berrien agerpena.

Berrikuntza sozialeko prozesuak sendotzeko aukera, parte-hartze prozesuen bidez.

AHULGUNEAK

Nekazaritzako profesionalen gutxitzea, eta enpleguan zein BPGarekiko ekarpenean jaitsierak. Horrekin batera, pertsona ekoizleek elikadura sistemari, lurraldeari eta oro har gizarteari egiten dioten benetako ekarpen osoaren kuantifikazio eta balorazio eskasa.

Adin handiko populazio nekazaria. Belaunaldi gazteek arazoak dituzte euren ustiapen txikiak ezartzeko: lurak eskuratzeko zailtasunak, nekazaritza lanen balorazio falta eta errentagarritasun maila apala.

Lanaren prekarietatea eta diru sarrera duinak lortzeko ezintasuna.

Nekazaritzako proiektuen finantza egitura ahula.

Profil berriei eta elikadura estrategia iraunkor bati egokitutako belaunaldi erreleboak lortzeko ibilbide edo modu berrien falta.

Genero desberdintasun orokortua lehen sektorean.

Lanaren banaketa sexualak emakumeak elikagaiekin lotutako zereginen erantzule bihurtzen ditu etxean % 70ean . Gertakari horrek, lan produktiboa eta etxeko lanen esparruan lan ugari egin behar denez, gero eta denbora gutxiago eskaini ahal zaie lan zehatz batzuri, baita elikagaiak hautatu eta prestatzeari ere. Hori dela eta, azkar egiten diren eta/edo gehiago prozesatzen diren produktuak/elikagaiak hobesten dira.

Lurren artifizializazio prozesu etengabea eta kezkarria (nekazaritzako ustiapenerako lur emankorren galera), eta ondasun komunen pribatizazioa.

Egungo nekazaritza eta elikadura eredutik eredu iraunkorrera modu orokortuan aldatzeko estrategia falta. Nekazaritza eta elikadura estrategien eta Garapen Iraunkorrerako Helburuen bideoaren arteko desakoplamendua.

Epe labur eta ertaineko perspektiba (proiektu taktikoak), epe luzeko perspektiba beharrea (proiektu estrategikoak). "Iraunkortasun ahuleko" ikuspuntutun politikak eta estrategiak, eta batzutan inkoherenteak.

Pertsona ekoizleentzako izapide administratiboen burokratizazio maila handia.

Populazioaren mugimendua hiriguneetarantz; landa inguru batzuen uztea eta despopulatzea.

Ekoizpenerantz eta dimentsio ekonomikorantz enfokatutako nekazaritza eredu, ez hainbeste elikadura sistamarantz eta dimentsio sozialerantz.

NPBaren diru laguntzen banaketa desorekatua, ekoizpen familiar txikien kalterako.

Elikaduraren kateko beste eragileekiko negoziatzeko botere desoreka (elikagaien banaketa enpresa handiak), eta horren ondorioz, pertsona ekoizleentzako prezio duinik eza.

Elikadura sistemaren eragile anitzen eta ekoizleen arteko artikulazio eta kooperazio maila apala.

Arloka lan egiten duen Gobernantza eredu. Instituzio edo erakunde publikoen arteko koordinazio falta; katearen parte diren eragileen arteko desoreka benetako erabakiguneetan: erabakiguneetan botere sendoa dute banatzaile handiek eta agroindustriak tokiko garapenerako eragileen, ekoizleen edo kontsumo ekologikoko eragileen aldean (adibidez PCTI deritzonaren definizioan, edo elikadura clusterrean).

I+B ekosisteman sortzen den jakintzaren transferentzia maila apala nekazal politiketara eta ekoizpen sektorera.

Elikadura eta nekazaritzarekiko deskonexio sozial orokorra.

Gizartearen baitan nahasketa dago iraunkortasuna, ekologikoa edo agroekologia bezalako kontzeptuen artean. Era berean, kontzeptu horiek modu hutsalean edo interesatuan erabiltzen dituzte industriak edo bestelako agente pribatu eta publikoek, esanahia eta benetako aldaketarako gaitasuna galaraziz.

2.3 COVID-19 testuingurua eta Agroekologia

Aste gutxi batzuetan, COVID-19ak agertarazi egin ditu, bai osasun sistemetan, bai elikadura sistemetan, hainbat beharrian, hutsune eta kontraesan kritiko. Sistema horiek, haien bermatzaile diren ondasun publikoak, eta haiek sostengatzen dituzten pertsonak azpibaloratuak izan dira azken hamarkadetan, eta ez dira babestu izan modu kontziente eta nahikoan.

Nazioarteko hainbat erakundek azaldu duten bezala, birusak azalarazi dituen sistemaren hutsuneak hurrengo urteetan okertu egingo dira klima larrialdiaren eraginez^{23,24}. COVID-19ak, era berean, berriro erakutsi du nekazaritzako eta elikadura industriako langileen prekarietate egoera, eta beraz, mundu mailan ze hauskorra den elikagaien hornikuntza sistema. Gainera, produktuak merkatura atera ezina eta eskariaren lurrunkortasuna nekazariak porrotera edota inbertsio garrantzitsuak ezin egin izatera daramatza. Eta hau guztia, gainera, COVID gabeko eszenatokian ere jada diru sarrera nahikoa bermatzen ez zen sektore batengain.

Bestalde, egoera horrek agerian utzi du baliabide gutxiendituzten pertsonen elikadura eskubidea- eta elikagaiak eskuratzeko eskubideari buruz dagoen ikuspegi falta. Krisi honen ondorioz, pertsona asko gose-ilara gero eta luzeagoen parte izatera iritsi dira, eta erantzuna, tokiko ekoizpena alde batera utzita, ikuspegi asistentzialistatik antolatu da, banaketa handiari lehentasuna emanez.

COVID-19ak erakutsi du elikagaiak ez direla beste edozein produktu bezalakoak; haien esentzialtasunaz ohartu gara.

Krisiari galga jartzeko hartutako neurriak abiapuntua izan daitezke maila guztietan erresilientzia sortuko lukeen elikadura sistemaren eraldaketarako. Mundu osoan osasunarengan onura handiak lekarzke,

²³ <http://www.ipes-food.org/pages/covid19>,

²⁴ <http://www.fao.org/3/cb1020en/CB1020EN.pdf>



gaixotasunak hedatzea eragiten duen habitat galera motelduz; etorkizunean egon litezkeen hornikuntza etenaldiekeragindakozaurgarritasuna murriztuz; pertsonak elikagaien ekoizpenarekin berriro konektatuz, eta “beldurrezko erosketa” eragiten duten izuak leunduz; janari elikagarri eta freskoak denontzako eskuragarri eta erosgarri jarritz; pertsonak gaixokor egiten dituzten elikadura ereduak birplanteatuz; eta nekazaritzan eta elikaduran oro har lan egiten duten pertsona eta proiektuei soldata justu eta baldintza seguruak eskainiaz, krisi ekonomikoen aurrean haien hauskortasuna eta gaixotasunak hartu eta hedatzeko arriskuak mugatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoan ere COVID19 krisiak hainbat neurri hartzea ekarri zuen. Eztabaidagarrienetako bat izan zen elikadura banaketa kate handietan tokiko produktuen erosketa diruztatzearena, ekoizpen arloaren babesik gabe, ekoizle tradizionalen zuzeneko

salmentarako merkatuak itxi ziren bitartean. Lehen sektoreko eragile nagusiek gizarte zibilarekin batera emandako erantzun irmoari esker merkatuok berriz ireki ziren; baina hala ere, elikadura ereduaren gaineko eztabaida sakona hasi berria den gaia da oraindik.

IPES-Food-en gomendioa da COVID bezalako egoerei aurre egiteko beharrezkoa dela elikadura sistema agroekologiko erresilienteen eraikuntza. Nekazaritza industrialetik sistema agroekologiko dibertsifikatuetaranzko paradigma aldaketa inoiz baino beharrezkoagoa da. **Iraunkortasunaren dimentsio ekonomiko, sozial eta ingurumenezkoak elkarlotzeko gaitasuna du agroekologiak, eta horrela aitortu dute FAO-k²⁵, IPCC-ren²⁶ txosten historikoek eta IPBES-ek²⁷, baita Europako Erregioen Batzordearen Agroekologia Irizpenak²⁸ eta Munduko Bankuak eta FAOk zuzendutako mundu mailako nekazaritzaren azterketak ere (IAASTD)²⁹.**

25 <http://www.fao.org/3/a-i4729e.pdf>

26 <https://www.ipcc.ch/site/assets/uploads/sites/4/2020/02/SRCCL-Chapter-5.pdf>

27 https://ipbes.net/sites/default/files/2020-02/ipbes_global_assessment_report_summary_for_policymakers_es.pdf

28 Agroekologiako Irizpena: <https://cor.europa.eu/ES/our-work/Pages/OpinionTimeline.aspx?opId=CDR-3137-2020>

29 https://www.globalpolicy.org/images/pdfs/IAASTD_Executive_Summary_of_the_Synthesis_Report_English.pdf



Agroekologiak, maila agronomikoan, erresilientzia hori dauka landare eta animalia desberdinak konbinatzeagatik, lurzorua aberasteko, landaketak ongarrizteko eta izurriteei kontra egiteko sinergia naturalak erabiltzen dituelako produktu kimiko sintetikoaren ordez. Horregatik, inportatutako insumo gutxiago erosi behar da, ongariak eta pestizidak adibidez, eta horregatik bere hauskortasuna mugatu egiten da merkatuaren eta prezioen gorabeherak daudenerako. Paisaiak eraitsi beharrean nekazal sistema berdinduak sorrarazteko, agroekologia “lurren elkartrukean” oinarritzen da. Agroekologo askok bere egiten duten lurralde ikuspegiak bateratu egiten ditu elikagaien ekoizleak eta kontserbazionistak, soluzioak bilatzerakoan; elikagai osasungarriaren ekoizpena eta basa bizitzako habitat garrantzitsuen babesa bateragarri egiten baititu. Sistema agroekologikoen gaixotasunetik erresistentzia handitu egiten dute, landare eta abereen hazkuntzak deszentralizatu eta berokatu egiten dituelako, aniztasuna probesteko. Tokian tokiko elikadura kulturak eta tokiko egitura komunitarioak, oinarritzeko direnak garai zailetan, kaltetu egin ditu nekazaritza industrialak, eta berreraiki egin daitezke agroekologiaren bidez. Lurraren produktibitatea handitu egiten du agroekologiak, landa eremuko pobrezia murrizten du, elikadura hobetzen laguntzen du, eta klima aldaketaren adaptazioan eta praktika onen ezarpenean eragiten du.

Dimentsio sozioekonomikoari dagokionez, tokiko merkatuak eta hornikuntza kate laburrak lurraldeari lotutako elikadura sistema agroekologikoak eraikitzeke osagai giltzarriak dira. Merkaturatze modu hurbilok janari freskoak eskura izatea errazten dute, nekazariei egiten zaien ordainketa hobetzen dute, eta nazioarteko merkatuetako gorabeheretik zaurgarritasuna murriztu. Hau guztia bereziki garrantzitsua da krisi egoeretan.

Onartu berri diren Elikadura Sistematarako eta Nutriziorako Borondatezko Jarraibideetan zehazten da krisi-egoeretan beharrezkoa dela merkataritza-korridore irekiak izatea, tokiko merkatuak barne, baita “langileen eskubideak eta herrialde guztietako elikadura-sistemen funtsezko alderdien etengabeko funtzionamendua zaintzea” ere³⁰.

Honek guztiak zerikusiz zuzena dauka herriek duten eskubide batekin: elikadura sistema osasungarri, iraunkor eta justizia sozialean sustraitutakoa bermatzeko eskubidearekin, hain zuzen.

Beraz, bere alde agronomiko, sozial, ekonomiko, kultural, politiko eta ingurumenezkoak kontuan hartuta, agroekologia aitortua da COVID garaiotan jarraitu eta garatu beharreko eredu gisa, elikadura burujabetza, elikadura eskubidea, eta planetaren eta populazioaren osasuna lortze aldera.

³⁰ Elikadura eta nutrizio sistematarako borondatezko jarraibideak. Elikagaien Segurtasunerako Munduko Batzordea, 2021. http://www.fao.org/fileadmin/templates/cfs/Docs1920/Nutrition_Food_System/Negotiations/NE982_CFS_2021_47_7_es.pdf




03. Fit4Food2030 proiektua eta bere garapena Euskadin

3.1. Fit4Food2030 proiektua

FIT4FOOD2030 gaur egungo elikadura sistema europarrak premiaz behar duen aldaketa laguntzeko jaio den proiektua da. Egun indarrean den elikagaiak ekoitzi, prozesatu, garraiatu, kontsumitu eta alperrik galtzeko era ez da jasangarria edo iraunkorra, batez ere etorkizuneko belaunaldiei elikadura segurtasuna eman nahi badiegu.


Fit4Food2030 proiektuaren helburu nagusia da gaur egungo elikadura sistemek dituzten erronkei aurre egiteko soluzioak sortzea ikerketa eta berrikuntzatik (I+B), eta bere lanarekin babesa ematea Europako Batzordeari **FOOD2030** estrategia inplementatzerakoan.




FOOD2030 ekimenak lehentasunezko lau ekintza arloz ehaztenditugure elikadura sistemen erronkei irtenbideak bilatzerakoan, ikerketa eta berrikuntzaren bidez (1. Irudia): Dieta iraunkor eta osasungarriarako elikadura; Klimatikoki adimenduak eta ingurumenarekiko iraunkorrak diren elikadura sistemak; Zirkulartasuna eta baliabideen eraginkortasuna elikadura sistemetan; Berrikuntza eta komunitateen ahalduntzea.

1. Irudia: FOOD2030-en lehentasunezko lau ekintza arloak.

Iturria: Fit4food2030.eu



Fit4Food2030-en plataforma bat aktibatzen da, non parte hartzen duten Europako hiri, eskualde eta estatuek, haien “politiken laborategien” bidez 2030erako elikadura politiketarako ikerketa eta berrikuntzako lurralde estrategia ezar dezaten.



Fit4Food2030-aren helburu zehatzak honakoak dira: 1) FOOD2030 Plataformaren sorrera eta Europa mailako agenteen sare bat sortzea; 2) elikadura eta nutrizio segurtasunaz dauden ikerketa eta berrikuntza (I+B) programak eta politikak lerratzea; 3) ikasle, ikerlari, enpresaburu, politiken arduradun eta gizarteko zati zabalagoen eskumenak garatu; 4) elikadura sistemaren joeren gaineko informazioa bildu, existitzen diren I+B politiken markoez, praktika onenez eta etorkizuneko I+B aurrerapenez ere informazioa jaso; eta 5) gizartearen sentsibilizazioa, elikadura sistema iraunkorraren inguruko kontzientzia handitzeko.

Laburbilduz, Fit4Food2030aren helburua **I+B politiken garapenean eragina izatea** da, politika horiek elikadura sistemari ibilbidea edo norabidea ezar diezaioten, sistemaren ikuspegi osoarekin, eta elikagaien ekoizpenari, prozesamenduari, banaketari eta kontsumoari dagozkion politika sektorialak bateginez, horrela ekintzen trantsizioa iraunkortasunerantz bideratuta.

Fit4Food2030-ak **Berrikuntza Ikerketa Arduratsuan**³¹ kontzeptuaren implementazioarekin (RRI, ingelesezko siglekin) lortu nahi ditu helburu horiek, eta ardatz nagusi bezala hartzen du **elikadura sistemen gaineko pentsamendu sistemikoaren ikuspegia**.

31 <https://rri-tools.eu/about-rri>


3.2. Euskadiko Politiken Laborategia Fit4Food2030

Fit4Food2030 proiektuaren helburuei jarraituz, Euskadiko Politiken Laborategia (EPL), Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) sustatua eta koordinatua, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Osasun sailen abalarekin sortu da. Eta elikadura sistemaren baitako hainbat sektoretako eragileen parte-hartzea izan du (nekazal sindikatuak, herri mugimenduak, administrazio publikoa, sektore pribatua eta akademia). **2019ko maiatzetik 2020ko urrira EPL-k aurrera eraman du euskal elikadura sistemaren etorkizuneko eszenatokien inguruko hausnarketa prozesu bat, bere helburua izanik lurralde honetan elikadura politika iraunkorretarako I+B estrategiarentzako ezinbestekotzat jotzen diren oinarriak zehaztea.**

Hemen aurkezten diren emaitzak, euskal elikadura sistemaren parte diren hainbat eragileren ikuspegietatik jasotakoak direnak, EPL-k erdigunean ipini dituen oinarriak dira. 2030era begira Euskadin Elikadura Politikako I+B estrategiarako oinarri nagusi bezala, hain zuzen; beti ere kontuan hartuta ingurumen ekitatea, eta iraunkortasunean oinarritutako garapen ekonomiko eta soziokulturalaren erronkak.

Koordinazio taldearen helburua zen eztabaida eta azterketarako plataforma bat eratzea, profil eta bisio ezberdinetako eta epe labur eta luzerako helburu desberdinak dituzten pertsonez osatua.


2. Koadroa: Fit4Food proiektuaren helburuak Euskadiko Politiken Laborategian



Iturria: Geronek egina

Helburu hauek lantzen joateko, laborategiko koordinaziotik prozesu bat diseinatu zen, hiru saiotan garatu zena. Saio horietan zehazki landu dira 2. irudian ageri diren gaiak.

2. irudia: Euskadiko Fit4Food Laborategiaren prozesuaren kronograma eta bertan landu diren gaiak



Iturria: geronek egina

*ESI: Elikadura Sistema Iraunkorrek

Prozesua abiatzeko, Fit4Food2030 proiektuaren talde motorearekin eta Amsterdamen beste laborategi europar batzuekin hastapeneko saio batzuen ondoren, alde zuzeneko elkarrizketa erronda bat egin genuen Euskadiko elikadura sistemako eragile gakoekin³², eta horren ostean laborategiaren diseinuarekin hasi ginen. Prozesu honetan, euskal elikadura sistemako 35 antolakunde esanguratsuri gonbidapen pertsonalizatua bialdu zitzaizkien, proiektuaren helburuak kontuan izanik. Haietako 20ren baiezko erantzuna jaso genuen. 3. koadroan jasotzen da zerrenda eta prozesuan izan zuten parte-hartzea.

Era berean, EPL-n lan egiteko, **parte-hartzerako abiapuntuko oinarri batzuk** ezarri ziren:

1. politiken laborategia hausnarketarako espazio **independente eta konfidantzazko** gisa ulertzea;
2. elikadura sistemari **ikuspegi sistemiko** batetik heltzen zaio, "elikadura sistemaren osotasuna", eta horregatik eragile askotarikoen bisioak eta ideiak jasotzeko parte-hartze gonbidapena egin da; **ikuspegi zabala**, ikupuntu askotarikoei ekiteko;
3. egoeraren larritasunak eta profil desberdinen parte-hartzea mantentzeko beharrak, parte-hartzaileen aldetik laborategian jarduteko **konpromisoa** eskatzen dute.

Prozesuaz parte-hartzaileek eginiko ebaluaketan jasotako erantzunak eskuan, uste dugu laborategiak oinarri horiek bermatu egin dituela, eta mantendu egin ahal izan direla prozesu osoan.

³² Lehen txanda honetarako funtsezko eragileak honako hauek izan ziren: Bittor Oroz, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea; Elena Gutierrez, Katiluko koordinatzailea; Xabier Lejarzegi, ENEEKeko koordinatzailea (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua); Eduardo Malagon eta Saioa Sese, azken urteotan Euskadiko Landa Garapen Planen UPV / EHUko ebaluazio taldea.

3. koadroa: Euskadiko Politiken Laborategiko parte-hartzaileen zerrenda eta asistentzia

Erakundea/Antolakundea	Profila	# Bilera		
		1	2	3
IHOBE -Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoa	Erakunde publikoa			
Nekazaritzako Zuzendaritza - Bizkaiko Foru Aldundia	Administrazio publikoa			
Neus Monllor	Aholkularitza agrosoziala			
Bizilur	GKE			
Leartiker Koop. Elk.	Zentro Teknologikoa			
D'elikatuz. Ordiziako elikadura eta gastronomiaren interpretazio zentroa.	Udal mailako entitate publikoa			
EHNE-Bizkaia	Nekazal sindikatua			
Transnational Institute	Akademia			
Openbide	Aholkularitza agrosoziala			
Elika fundazioa - Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa	Entitate publikoa			
Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco	Akademia			
Euskadiko Elikaduraren Clusterra	Irabazi asmorik gabeko elkar- tea			
Orkestra- Lehiakortasunerako Euskal Institutua	Akademia			
Neiker- Nekazal Ikerketarako Euskal Institutua	Entitate publikoa			
ENBA - Gipuzkoako Euskal Nekazarien Bata-suna	Nekazal sindikatua			
ENEK- Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua	Entitate erdi-publikoa			
Gaindegia - Behatoki sozioekonomikoa	Irabazi asmorik gabeko elkar- tea			
Bidezko Elikadura	GKE			
Ekoizpen Urduña - Urduña eta eskualdearen garapen agroekologikorako zerbitzua	Entitate publikoa			

Iturria: geronek egina



Fit4Food2030-aren kokapen kontzeptual eta metodologikoak dio I+B prozesuak honako ezaugarriak izan behar dituela: askotarikoa eta inklusiboa; aurreikuslea eta islatzailea; irekia eta gardena; sentikorra eta aldaketara moldagarria. Beste alde batetik, honako kontzeptuekin lan egiten du: elikadura sistemen enfokea; Ikerketa eta Berrikuntza Arduratsua; Open Science, Praktika Komunitatea eta Nazioarteko Lankidetz³³.

Gai metodologiko hauek kontuan hartuta, uste dugu garrantzitsua dela modu sendo eta praktikoa batez euskal laborategian txertatzea, eta horrela fase bakoitzeko helburuak lortzeko proposenak ziren dinamikak aukeratu ziren. EPL-ko saio bakoitzeko emaitzak parte hartu duten pertsoneri berbidali izan zaizkie, prozesu

osoan haien kontrastea jasotzeko, feed-back-ak jasoz eta beharrezko doikuntzak eginez.

Lehenengo saioan (EPL 1. bilera), 2019ko urriaren 1ean, Fit4Food2030 proiektua kokatu eta zehazki azaltzeaz gain, elikadura sistema bere lau dimentsioekin azaldu genuen (gehi beste hiru zeharlerroko dimentsio) (3. irudia), euskal elikadura sistemak 2030era begira dituen erronkak lantzeko. Funtsezkotzat jotzen zen parte-hartzaile guztiak identifikatzeko lan-esparrua izatea. Hortaz, dimentsio horien oinarrian, arestian aipatutako FOOD2030 estrategia dago, eta beste dokumentu batzuetako ikuspegiak ere txertatu ziren, hala nola, Familia Nekazaritzaren Hamarkadako zutabeak³⁴ eta gainera hau guztia Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) lotuaz osatu zen³⁵:

³³ <https://fit4food2030.eu/theproject/concepts-methods/>

³⁴ <http://www.fao.org/3/ca4672en/ca4672en.pdf>

³⁵ <https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/objetivos-de-desarrollo-sostenible/>

3. irudia: Elikadura sistemaren lan dimentsioak EPL-n.

GOBERNANTZA ETA KOMUNITATEEN AHALDUNTZEA

Erantzukizuna, parte-hartzea, jarraipena eta politika publikoen sortzea. Politika publikoen inkoherentziak. Hirietarako elikadura eraginkorra. Parte-hartzerako berrikuntza digitalak, elikadura eta nutrizio segurtasunean eztabaida publikoa...



ELIKADURA, OSASUNA ETA ONGIZATEA

Soluciones para la malnutrición, productos ultraprocesados, calidad de los alimentos, lactancia, crear mercados para alimentos nutritivos, promoción de la salud/concienciación...



INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

Klima aldaketa, ingurumena, bioaniztasuna, basoak, lurraldearen kudeaketa, akuakultura iraunkorra, nekazaritzaren optimizazioa/prezisioren handitzea, lurzoruak aberastea...



EKOIZPEN, ENPLEGU ETA ELKARTUKE EREDUAK

Janarien xahuketa, banaketa formulak, lan baldintzak/ordutegiak, ekoizpen ereduak...



Iturria: geronek egina

Koordinazio taldeak lau lantaldetan banatu zituen parte hartu zuten pertsonak eta antolakundeak, dimentsio nagusi bakoitzeko bana, horretarako kontuan hartuta haien profila zein den elikadura sistemaren baitan.



Laborategiko hiru saioen edukina

2. Irudian aurreratu den bezala, prozesua hiru saio nagusirekin burutu zen.

Lehenengo saioko lehenengo ariketan, 2019ko urriaren 1ean, parte-hartzaileei eskatu zitzairen banaka zehaztu zitzaten **euskal elikadura sistema iraunkorrerako etorkizuneko erronkak**. Jarraian, errazte dinamika batez lagunduta, modu kolektiboan eztabaidatu zituzten haien ideiak eta ikuspegiak lau taldeen baitan, lau dimentsioak aintzat hartuta; adosteko eskatu zitzairen, eta kokatzeko zehazturiko erronketako bakoitza, alde batetik bere urjentzia kontuan hartuta, eta bestetik, ea tokiko mailan edo maila globalean konpontzeko moduko arazoa ote zen.

EPL-aren bigarren topaketaren helburu nagusia, 2020ko urtarrilean, lehenengo bileran identifikatutako erronkak zehaztea

izan zen, **“2030ean euskal Elikadura Sistema iraunkorrerantz aurrera egiteko I+B hutsuneak zeintzuk diren” azalduz**. Hemen egindako lana **“Abaraska”** deritzon dinamika berritzaile batetik eratorri zen, zeina hurrengo atalean azalduko dugun.

Azkenik, **azken Lab-saioan**, 2020ko urrian (COVID-19ak eragindako osasun krisiagatik bi ONLINE saioen bidez egina), **aurreko bileraren emaitzak baliozkotu ziren** –erlauntzaren dinamikaren konplexutasunagatik-, oinarri gisa balio zezaten Euskadin 2030erako iraunkortasun ikuspegidun I+B estrategia eraikitzeko. Modu birtualean egindako saio hauetan gonbidapena egin zitzairen parte-hartzaileei, halaber, proiektu zehatzagoak definitu zitzairen, erlauntzan zehaztutako ekintzak eta beharrianak kontuan harturik (ikus 1. eranskina).

Jarraian zehaztuko ditugu prozesuaren emaitzak.



Iturria: EPLko saioen irudiak

04. Euskadin 2030erako elikadura sistema iraunkorra izateko erronken definizio kolektiboa

Jarraian, 4. koadroan, biltzen dira lehenengo saiotik eratorrita, dimentsio nagusi bakoitzari dagozkion **erronka urjenteenak eta tokiko mailatik ekiteko modukotzat jo zituzten erronka nagusiak**. Koadro horretan erronka guztiak jasotzen diren arren, dimentsio bakoitzaren baitan erronka nagusiak honakoak izan ziren.

Ekoizpen ereduak, enplegua eta elkartrukea barnebiltzen dituen dimentsioan, gai batzuk azpimarratu ziren arren, modu berezian honako hauei eman zitzaien garrantzia:

- › **belaunaldi erreleboaren** erronka, lehenengo sektorean pertsonak sartuko direla ziurtatzeko;
- › **baliabideen erabilpena** eta horiek banatuz lortzen den eraginkortasuna;
- › tokiko produktu iraunkorren banaketa errazteko **araudiaren malgutzea**;
- › **tokiko produktuari balioa eman**, tokiko banaketa eredu bidez, merkaturatzearen bidez, sentibilizazioaz, formakuntzaz, jantoki kolektiboen bidez. Beharrezkotzat jotzen dira sektorearen lan baldintzen oztopoak edota diru laguntzak landuko dituzten politika publikoak.

Ingurumenaren iraunkortasunari dagokion dimentsioan, gai batzuk azpimarratu ziren arren, garrantzia maila gorena eman zitzaien honako erronka hauei:

- › **Tokiko elikagaiekin hornikuntza egiteko helburuak eta irizpideak** garatzea;
- › **Ekoizpenerako lur emankorra babestu**, landa lurra, itsasoa, kupoen gaia, lur emankorragoen erreserba egitea, zaintza egiteagatik ere laguntzak jasotzea;
- › **Kontsumitzaileen formakuntza iraunkortasunari buruz**, “erosketa askea” posible izateko;
- › **Nekazari berrien instalazioa**. Belaunaldi erreleborako programak. Bokazioa sustatu. Nekazal ekoizpeneko sektorea duindu. Tokiko mailako agro-sistemak sendotu.

Nutrizioa, Osasuna eta Ongizatea atalean, lau erronka kokatu ziren nagusi bezala:

- › **Osasun sistema publikoan** nutrizio adituak txertatzea;
- › **Euskal eskola curriculumean** elikaduraren inguruko hezkuntza zeharlerro gisa garatzea;
- › **Tokiko eta sasoiko elikagaiak** eskuratzeko espazioen beharrezan. Enpresa ekimeneen falta, “Good Fast Food” posibleak aipatu dira;
- › **Kontsumitzailearekiko komunikazioa** erraztu.

Azkenik, **Gobernantza eta Komunitateen Ahalduntzearen** dimentsioan, honako lau erronkak nabarmendu dira, 2030ean euskal elikadura sistema iraunkorra izate aldera:

- › **Elikaduraren dimentsioa txertatu HAPOetan**;
- › **Eskualde mailako elikadura kontseiluak** eratu;
- › **Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) plan estrategikoa** garatu, elikaduraren iraunkortasunerako mugimendua txertatuz;
- › Politika publikoetan **eragileen arteko parte-hartze parekidea** garatu eta **mailen arteko koordinazioa** hobetu.

Hurrengo koadroan laburbilduta jaso ditugu Euskadi Laborategian dimentsio bakoitzerako definitu ziren erronka guztiak.

4. koadroa: erronka premiazkoenak tokiko mailatik, EPL-k zehaztuta.

EKOIZPEN, ENPLEGU ETA ELKARTRUKE EREDUAK	INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA	NUTRIZIOA, OSASUNA ETA ONGIZATEA	GOBERNANTZA ETA KOMUNITATEEN AHALDUNTZEA
<ul style="list-style-type: none"> • Belaunaldien erreleboa. • Tokiko produktuari balioa eman. • Baliabideak partekatu. • Araudia malgutu: tokiko produktu iraunkorren banaketa erraztu. • I+G+i nekazal eta abelzaintza eredu iraunkorretan. • Elikadura sistemaren eraginei buruzko informazioa eta formazioa. • Soberakinei balioa eman (elikagai itsusiak). • Ontziratzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Irizpideak garatu: Auto-hornikuntza, inportatutako elikagaiak. • Ekoizpenerako lur emankorrrak babestu. • Kontsumitzailea formatu, "erosketa askea" egin ahal izateko. • Kontzientziazioa. Iraunkortasun etiketak. • Belaunaldien errelebo aktiborako programak. • Sektorearen bokazioa eta duintzea sustatu. • Tokiko agro-sistemak indartu. • Emakumearen normalizazioa lehen sektorean. • Tokiko produktuaren sustapena. • Bioaniztasuna sustatu: tokiko material genetikoak babestu. • Ekoizpen ereduak definitzeko lege marko berriak, ereduok baliabideen kontsumoa eta iraunkortasuna aintzat hartuz definitzeko. • Sail eta gai desberdinak barnebilduko dituzten gobernantza modu berriak. Ikuspegi multifaktoriala. • Ontziratzea murrizteko estrategia eta arauak. • Neurgailuak/adierazleak: ordenatu eta kategorizatu. • Nekazal sistemarentzako teknologiak: iraunkorra, eraginkorra. 	<ul style="list-style-type: none"> • Osasun sistema publikoan nutrizio adituak txertatu. • Eskolako curriculumean eta gizartean elikadurari buruzko hezkuntza zeharlerroa izatea. • Tokiko eta sasoiko elikagaiak eskuratzeko espazioak. Enpresa ekimeneen falta. Tokiko eta hurbileko produktuen banaketa bideak (hurbiltasun kontzeptua, koherentzia elikaduran). • Lurraldeari atxikitako elikadura sustatu: kontzientziazioa eta lurralde egituraketa. • "Kontziliazioa elikaduran": produktuaren eskuragarritasuna eta genero ikuspegia. • Kontsumitzailearekiko komunikazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • HAPOetan elikaduraren dimentsioa txertatu. • Eskualde mailako elikadura kontseiluak eratu. • NPBaren plan estrategikoa garatu, elikaduraren iraunkortasunerako mugimendua txertatuz. • Eragileen arteko parte-hartze parekidea politika publikoetan eta mailen arteko koordinazioa hobetu. • Gehiago hitz egin elikadura sistemaz eta eskualde mailako erosketa publikoaz. • Landa eremukoa eta hirikoa lantzearen arteko integrazioa. • Elikadurari lotutako arazoan diagnostiko sozial partekatua. • Politika publikoetan Berdintasun Teknikarien eta mugimendu feministen integrazioa handitu.


Iturria: EPL-ren 1. saioan egindako lana

Lau dimentsio nagusiekin batera identifikatutako zeharlerroei dagokionez (Generoa, Gazteria eta Kultura eta Harreman ereduak), hauek ez dira landu lantaldeetan. Parte-hartzaileek hiru zeharlerro hauei lotutako erronkarik ez identifikatu izana bera, bada emaitza bat, lehentasun gisa hartzen diren beharrezanetan elementu hauen gaineko begirada ez baita txertatu. Hau errepikatu den kontua izan da laborategi osoan zehar.

05. Euskal elikadura Sistemaren erronketan sakontzen: Abaraska.

Bigarren bileran “**pathway-step analysis**” metodoa landu zen. Pathway-step edo “Abaraska” dinamika (4. irudia) Amsterdameko Vrije Universiteit-eko Fit4Food2030 proiektuaren koordinaziotik egindako proposamena da, lehenengo fasean identifikatutako erronketan sakontzeko. Hexagono edo gelaxka nagusi bat dago (berdea); bertan aurreko fasean zehaztutako erronka jartzen da, eta hortik, parte hartzen duten antolakundeek erronka hori gainditzeko **behar diren ekintzak definitu** behar dituzte; gainera, ekintza horiei ekiteko zein edo zeintzuk izan beharko liratekeen **antolakunde liderrak edo arduradunak** esateko ere proposatzen zaie.

4. irudia: Pathway-step dinamikaren oinarriko egitura




Ekintzei dagokionez, **bost kategoriatan sailkatzen dira**, 4. irudian ikus daitekeen bezala: *Inbertsioa (beltza)*, *Araudia (urdina)*, *Informazioa eta Hezkuntza (berdea)*, *Baliabide fisikoak-teknologia gogorra (gorria)* eta *Antolaketa soziala-teknologia biguna (morea)*. Gainera, balizko Gelaxka Hutsak identifikatzen dira (galdera ikurdun ekintzak edo kategoria gabekoak, betegarri urdin argiz): erronkan aurrera egiten jarraitzeko zer egin beharko litzatekeen ez dakigun haiek.

Iturria: Geronek egina

Azken emaitza “**kategorien arabera**ko ekintzen” eta “gelaxka hutsen” abaraska sortzea izan zen, lau dimentsioetako bakoitzeko, eta horiek osatzen dute dokumentu honetan aurkezten den estrategiaren oinarria. Abaraska osoa 5. irudian jasotzen da; dimentsio bakoitzari dagokion abaraskaren zehaztasuna, eta saioan bildu ziren ekintza guztiak 1. eranskinean jasotzen dira.

Abaraskaren lana zehaztu, mugatu eta egingarri izateko, EPL-ren kasuan lau erronka urjenteenak eta tokiko mailakoak aukeratu ziren lau dimentsioetako bakoitzean; 4. koadroan beltzez nabarmendu direnak, hain zuzen.



Iturria: geronek egina



Abaraska begiratzten badugu, **iraunkortasunaren eremua** (gorriz margoturiko gunea), “beste dimentsio guztiak ikutzen” dituen eremua da, definitzen ari garen elikadura sistema iraunkor baterako I+B estrategia batek izan behar duen bezalako koherentzia sortuz. Horrela, lan eremu zehatz bat izateaz gain, beste dimentsio guztiak zeharkatzen dituen eremua ere bada.

Era berean, hezkuntza, gobernantza eta legedia kategoriei lotutako gelaxketan identifikatu diren ekintzak, errepikatu egiten dira dimentsio guztietan, lan eremu asko barnebiltzen dituzte, baita sail instituzional eta diziplina desberdinen arteko interakzioak ere.

Behin zehaztuta erronkei ekiteko ekintzak, eta horien arteko loturak, EPL-ren hirugarren bilerak abaraska horretan birkokatze bakoitzean, zehaztutakoa balioztatuz, eta gelaxka hutsak identifikatuz. Bestetik, parte

hartzen duten antolakundeentzako abiapuntu bezala baliogarriak izan daitezkeen proiektuak zehazteko. Horregatik, lehenengo eta bat, alde zehatzetik zehaztutako bideak eta ekintzak baliozkotu ziren, eta arinago identifikatu ez ziren pauso berriak ere gehitu zitzaizkien (fondo horidun hexagonoak 1. eranskinean); eta, bigarrenik, parte-hartzaileei proposatu zitzaizkien abaraskako gelaxka hutsak gauzatzeko ekintza zehatzagoak esan zitzaizkien. Gelaxka nola garatu ote zitekeen galdetu zitzaizkien, zein proiektu zehatzekin, haien burua norekin ikusten zuten parte hartzen, gelaxka horretan aurrera egin ahal izateko beharizanak, eta finantzatzeko moduak. Finantza baliabideen, langileen eta denboraren falta izan ziren beharizan horiek zehazterakoan behin eta berriro aipatu ziren gaiak.

Jarraian, abaraskaren emaitzak formato ohikoagoan aurkezten ditugu, prozesu honen helburu nagusiari erantzuna emateko.

**06. Euskadin 2030erako
elikadura sistema
iraunkorra izateko
Ikerketa eta
Berrikuntzako ildo
estrategikoak eta
ekintza planak.**

Pathway-step edo “Abaraska” dinamikarekin ikusi dugun bezala, erronken planteamendua eta ekintzak abaraskan elkarri lotuta ageri dira (ikus 1. eranskina). Hala ere, jarraian aurkezten dugun laburpen koadroan ageri dira Fit4Food2030 eta EPL-tik baliozkotu diren **erronkak eta ekintza planak, Euskadin 2030erako elikadura sistema iraunkorra izateko Ikerketa eta Berrikuntza estrategia baterako.**

DIMENTSIOA: Ekoizpen ereduak



ERRONKA ESTRATEGIKOAK	Ekintza Planak I&B-n	Kategoria giltzarriak	
1. ERRONKA Belaunaldi erreleboa nekazaritzan	1. Ekintza plana: Eskolarako hezkuntza programak garatu: Lehen sektorean lan egiteko bokazioa sustatzeko eta sektorea duintzeko. (7. ekintza planarekin lotuta)	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio eta Hezkuntzaren kategoria. • Inbertsioen kategoria. • Antolaketa sozialaren kategoria (teknologia biguna). • Baliabide fisikoen kategoria. . 	
	2. Ekintza plana: Lanbide heziketa eta lanbide garapenerako programak.		<ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpen sektorean aktibo dauden belaunadien jakintzaren transmisiorako programa. • Familiako edo familiaz kanpoko etxaldean Traspaso Osorako programa. .
	3. Ekintza plana: Nekazaritzako azpiegitura eta baliabideen kudeaketarako berrikuntzarako programak (9. ekintza planarekin lotuta)		<ul style="list-style-type: none"> • Nekazal ustiapenen parke publikoa. • Administrazioen lur erosketa, proiektu agroekologikoetarako.



ERRONKA ESTRATEGIKOAK	Ekintza Planak I&B-n		Kategoria giltzarriak
2. ERRONKA Tokiko produktuari balioa eman	4. Ekintza plana: Elikagai ekologikoen kontsumoaren kulturaranzko trantsizioa.	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrak ahalduzko eta tokiko produktu iraunkorrari balioa emateko ekintzak. Nekazaritza lanari balioa emateko eta tokiko produktua erosteko konpromiso soziala areagotzeko ekintzak. Elikagai ekologikoak eskuratzeko alternatibak ikusarazteko ekintzak (eskuragarritasuna/prezioa hobetu). Kolektibo ezberdinak elkarrekin konektatzeko azpiegitura-tresna online eta offline-en sorrera. Ostalaritza, enpresak, horniketak..., ekoizle eta kooperatibekin konektatzeko. Elikagai ekologikoei buruzko informazio eta dibulgazio kanpainak. 	<ul style="list-style-type: none"> Antolaketa sozialaren kategoria Baliabide fisikoen kategoria. Inbertsioen kategoria. Informazio eta Hezkuntzaren kategoria.
	5. Ekintza plana: Ekoizpen ekologikoa sustatu, "Farm to Fork" strategiaren helburura iristeko: 2030ean Erabilitako Nekazal Azaleraren %25, Elikadura Ekologikoa.	<ul style="list-style-type: none"> Eredu ekologikoen eraginkortasuna handitzeko programa: lanerako espazioaren antolaketa, azterketa ekonomikoak, eskalen analisia, eskala agroekologikora egokitutako teknologiak... Plan estrategikoen eta Landa Garapenerako Planen birbideratzea 2020-27rako NPB-ren aplikaziorako, ekoizpen eredu ekologikoak sustatuz (31. ekintza planarekin lotuta). Tokian tokiko elikadura sistemak eraikitzeko, ekoizpen ekologikoaren egituraketa (10. ekintza planarekin lotuta). 	
	6. Ekintza plana: Arrantza iraunkorra (24. ekintza planarekin lotuta).	<ul style="list-style-type: none"> Arrantza industrialaren baztertea eta arrantza iraunkorraren garapena sustatzera bidean, alternatiba egokiak eskaini ahal izateko azpiegiturak garatu. Estatu mailan aztertu Europa mailako arrantza araudien eta politiken interpretazioa, herrialde ezberdinen artean ereduak elkartrukatu ahal izateko eta testuinguru ezberdinak ulertzeko. Emakumeek arrantzan eta arrantza artisauko salmentaren koordinazioan duten rol giltzarria aztertu eta ikusarazteko proiektuak. 	
	7. Ekintza plana: (1. ekintza planarekin lotuta): Eskolarako hezkuntza programak garatu, honako helburuetan lagunduko dutenak: haurtzarotik hasita, hezkuntza kritikoa sustatu; eredu agroindustrialaren kalteak seinatu; tokiko elikadurak eta gizartearekiko konpromisoak dakartzaten balioak sustatu; ekologikoaren kulturari balioa emango dioten jarduerak.		
	8. Ekintza plana: Erosketa publiko iraunkorra.	<ul style="list-style-type: none"> Erosketa publikorako araudi markoa, formazioa eta tresna instituzional zehatzak. Sukalde publikoetan proiektu piloak (hezkuntza, osasun eta zaintza sektoreetan), koherentzia eta praktika onen eredu bezala. 	

ERRONKA ESTRATEGIKOAK	Ekintza Planak I&B-n		Kategoria giltzarriak
<p>3. ERRONKA Elikaduran lankidetzazko baliabide eta estrategiak erabiltzea</p>	<p>9. Ekintza plana: Lankidetzaren kulturarako programak garatu lehen sektorean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • "Lankidetzakultura" programa ekoizpen sektorean. • Nekazaritzako azpiegiturak elkarbanatzeko programa zehatza (ustiapenen parke publikoari lotuta, 3. Ekintza Plana). 	<ul style="list-style-type: none"> • Antolaketa sozialaren kategoria. • Baliabide fisikoen kategoria. • Araudien kategoria. • Sektoreen arteko gobernantza, elikadura estrategiaren garapenean.
<p>4. ERRONKA Araudiaren malgutzea</p>	<p>10. Ekintza plana: Eskualde eta komunitate mailako elikadura estrategiak garatu (tokiko elikadura sistemen egituraketa kudeatzeko ezinbesteko alde aurretiko pausoa, 5. Ekintza Plana; 25. Ekintza planarekin lotuta).</p>	<p>11. Ekintza plana: Tokiko produktu iraunkorren salmentari dagokion legedian aldaketa irizpideak garatu, nekazal sektorearen ikuspuntutik.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Higijene eta osasun baldintzen malgutzeari eta hurbileko produktuen salmentari dagokion legedia osatu, praktika onen gidari dagokionarekin batera. • Salmenta zuzeneko dekretua garatzen amaitu. • Euskadin gaur egun badaude aktibo ziurtagiri parte-hartzaileak eta berme ekologikodun markak. <ul style="list-style-type: none"> • Araudien kategoria. • Gobernantza: zerikusia duten antolakundeen arteko adostasunerako borondatea.



DIMENTSIONA: Nutrizioa eta osasuna

ERRONKA ESTRATEGIKOAK	Ekintza Planak I&B-n	Kategoria giltzarriak
5. ERRONKA Osasun eta elikaduraren eremuetan Dietetika eta Nutrizioa txertatzea	12. Ekintza plana: Dietistak eta nutrizionistak txertatzea Osasun sisteman.	<ul style="list-style-type: none"> • Araudien kategoria. • Informazio eta Hezkuntza kategoria. • Inbertsio kategoria. • Maila askotako Gobernantza: tokikoa, erregio mailakoa, estatu mailako.
	13. Ekintza plana: Populazioari eta profesionalei bideratutako hezkuntza/formakuntza programak garatu (16. ekintza planarekin lotuta).	
6. ERRONKA Elikadurari buruzko hezkuntza, eskolako curriculumean zeharkako gaia izatea	Ekintza 14. Ekintza plana: Eskola hezkuntzarako programak garatu.	<ul style="list-style-type: none"> • Informazio eta Hezkuntza kategoria. • Araudien kategoria. • Inbertsio kategoria. • Eragile askoren gobernantza.
7. ERRONKA Tokiko eta sasoko elikagaiak eskuratzeko espazioak	15. Ekintza plana: Tokiko elikagaiak eskuratzeko azpiegiturak garatu	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide fisikoen kategoria. • Araudien kategoria. • Gizarte antolaketaren kategoria.
	16. Ekintza plana: Elikadura osasungarria eskuragarri izatea errazteko berrikuntza sozialeko proiektuak garatu (13. ekintza planarekin lotuta).	

DIMENTSIONA: Iraunkortasuna eta ingurumena

ERRONKA ESTRATEGIKOAK	Ekintza Planak I&B-n	Kategoria giltzarriak
8. ERRONKA Irizpideak elikagaien auto-hornikuntzan eta inportazioan	17. Ekintza plana: Elikagaien auto-hornikuntzaz eta inportazioaz irizpideak zehazteko, eragile desberdinen arteko eztabaida eta eraikuntza espazioak sortu.	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte antolaketaren kategoria. Araudien kategoria. Informazio eta hezkuntzaren kategoria. Eragile askoren gobernantza.
	18. Ekintza plana: Auto-hornikuntzarako irizpide lotesle eta kontsentsuzkoei buruzko araudia.	
	19. Ekintza plana: Elikagaien hornikuntzaren sistematizazioa eta ebaluazioa. <ul style="list-style-type: none"> Beste lurralde batzuetako erreferentziazko esperientzien sistematizazio proiektua, horien bidez elikadura ohituretan eragina izango duten erramintak diseinatu ahal izateko, bai norbanako mailan, bai maila kolektiboan, elikadura eremu desberdinetan. Ingurumen irizpideak izango dituen adierazle sistema diseinatu eta aplikatu (eragin zuzenak eta zeharkakoak barnebiduko dituen), elikagaien hornikuntza ebaluatzeko. Zerbitzu ekosistemiko eta iraunkorren adierazle sistemak garatu eta aplikatu. Ekoizpenetik hasi eta kontsumo eremu desberdinetarainoko elikadura katea aztertzeke proiektuak garatu, elikadura sistemak berlokaltzatzeak eragindako beharrianak eta aukerak aztertuko dituztenak. 	
9. ERRONKA Ekoizpenerako lurzorua babestu	20. Ekintza plana: Legedian aldaketa irizpideak eta tresnak garatu nekazaritzako eta naturako baliabideak babesteko, maila globalean zein tokiko mailan (HAPO) (lurrak, haziak, basoak, iraunkortasun etiketak...)	<ul style="list-style-type: none"> Araudien kategoria. Inbertsioen kategoria. Informazio eta hezkuntzaren kategoria. Baliabide fisikoen kategoria.
	21. Ekintza plana: Eraginen analisia eta iraunkortasunaren sustapena <ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura handien eta ekoizpenerako eta banaketarako beste eredu batzuk sustatzearen eragin positibo eta negatiboari buruzko analisi proiektuak. Elikadura sistemaren baitako ekintzen ingurumen eragina neurtzeko metodologiak garatu. Ondasun produktiboak identifikatu eta berreskuratzeke programak garatu. 	
	22. Ekintza plana: Nekazaritzako lanez eta ondasun komunen zaintzaz sentsibilizatzeko gizarte komunikaziorako programa.	
10. ERRONKA Kontsumitzailea formatu, "erosketa askea" egin ahal izateko	23. Ekintza plana: Berrikuntza ezarri elikagaien iraunkortasun etiketatzearen araudian, tokiko-ekologiko ikuspegitik, eragile askotarikoekin batera, formakuntza eta gizarte ahduntzea izanik helburuak.	<ul style="list-style-type: none"> Araudien kategoria. Informazio eta hezkuntzaren kategoria.
	24. Ekintza plana: Arrantza iraunkorraren difusiorako programa kontsumitzaileek ezagutu dezaten tokiko arrantzaren sasoikako izaera (6. ekintza planarekin lotuta).	

DIMENTSIOA: Gobernantza



ERRONKA ESTRATEGIKOAK	Ekintza Planak I&B-n	Kategoria giltzarriak	
11. ERRONKA Berdintasunezko parte-hartzea politika publikoetan	25. Ekintza plana: Gobernuko sail ezberdinen arteko koordinazioa elikadura sistema iraunkorrerako.	<ul style="list-style-type: none"> • Araudien kategorია. • Gizarte antolaketaren kategorია. • Baliabide fisikoen kategorია. • Inbertsioen kategorია. • Informazio eta hezkuntzaren kategorია. • Gobernantza: Eragile mota guztiekin, guztiz zeharlerroko gaia da. Baserritarrak, dendak, supermerkatuak, katerin enpresak, medikuak, nutrizionistak, hezkuntzako eragileak, gurasoen elkarteak. 	
	26. Ekintza plana: Elikadura iraunkorreko Bio-erregioetaranzko eraldaketa prozesua; analisia eta garapena.		<ul style="list-style-type: none"> • Mapeo de la distribución de competencias de agentes de las administraciones en Euskadi en materia de sistema alimentario. • Plan de coordinación de la estrategia alimentaria vasca (junto a articular "consejos de alimentación comarcales", plan de acción 10). • Plan de empoderamiento y concienciación de toda la cadena para con el cambio climático y la justicia social.
	27. Ekintza plana: Gobernantza berriak.		<ul style="list-style-type: none"> • Proyecto de Innovación para la participación e inclusión de sectores históricamente excluidos en los procesos de decisión en el ámbito de la política pública y alimentaria. Evaluación y seguimiento de estos proyectos (plan de acción 28). • Dar a conocer los espacios de toma de decisión del sistema alimentario y creación de foros ciudadanos para el diseño y las políticas públicas en el ámbito alimentario. • Proyectos piloto de nuevos modelos de participación y gobernanza: definir la participación, las funciones, dinámicas y roles en cada caso.
12. ERRONKA NPB-ren plan estrategikoa garatu, elikadura iraunkortasunerako mugimendua txertatuta	28. Ekintza plana: Elikadura sistemaren eremuko politika publikoen inplementazioa/ezarpena eta ebaluazioa egiteko mekanismoa sortu, adituen sareen bidez (Think Tanks).	<ul style="list-style-type: none"> • Baliabide fisikoen kategorία. • Gizarte antolaketaren kategorία. • Araudien kategorία: NPB eta LGP-ak. 	
	29. Ekintza plana: Inplementatutako lurraldekako planen urteroko emaitzak, doikuntzak eta kontuak ebaluatzeko sistema garatu.		30. Ekintza plana: Parte-hartzeko mekanismo berriak garatu, NPB zehazteko orduan nekazaritzako eta gizarte zibileko antolakundeek erabakiguneak izan ditzaten.
	31. Ekintza plana: Euskadiko Landa Garapen Planetan (LGP) laguntza zehatzak txertatu nekazaritza ekologikoranzko aldaketak sustatzeko (5. ekintza planarekin lotuta).		

Ilde estrategikoei atxikitako ekintza planek errepikatzen diren ideiak jasotzen dituzte, dimentsioen arteko lotura eta lehentasunezko zat jo diren berrikuntzak agerian utziz. Honek erakusten du **ikuspegi sistemikotik eta diziplinarteko lanetik berritu eta ikertzearen premia; erakunde publikoetako sail desberdinen eta elikadura sistemako gainontzeko eragileen arteko elkarlanetik**, alegia.

Proposamenak, bere osotasunean, 12 erronka eta 31 ekintza plan barnebiltzen ditu. Ekintza plan hauek burutzeko estrategiak administrazioko hainbat sailekiko lotura, eta diziplinarteko lana eskatzen dutenez, plan bakoitza kategoriazehatzekin lotu da (inbertsioa, gizarte antolaketak, araudia, hezkuntza-informazioa, baliabide fisikoak), EPL-ren saioretako parte-hartzaileek esandako moduan.

Emaitei buruz, gaietako batzuk nabarmenduko ditugu, proposamenari bere osotasunean daukan garrantzia kendu gabe eta sintesia egiteko asmorik gabe.

Alde batetik, **pertsona ekoizleen lana ikusaraztearen beharizana** agertu da behin eta berriz. Bai sektorerako sarbidea errazteko, bai bere lehiakortasuna handitzeko. Ekoizpena lagundu, bai elikadura estrategien eta politika publikoen bidez, bai lurra eskuragarri jarritz; horiek baitira lehenengo sektorearen baitan belaunaldi erreleboa lantzeko erraztasunetako batzuk. Erronka hori dimentsio batean baino gehiagotan aipatu da.

Era berean, **hezkuntza** da estrategia honen oinarrietako bat, eta berrikuntzaren oinarri bezala ageri da, elikadura sistemaren baitan trantsizio ekosozialak bermatzeko. Zutabe hau transbertsala da, eskola eta osasun sistemetan eta gizartean oro har eragiten baitu. Hezkuntzaren eta formazioaren bidez,

eskubidearekiko ahalduntze soziala lantzen da, elikadura osasungarri eta iraunkorraren kultura, eta pertsona ekoizleen lana aitortu eta balioa ematea.

Eskualde mailako elikadura estrategien eraikuntza da aurkeztutako **estrategiaren bizkarrezurretako bat**. Hauek ekoizpen eredu iraunkorrerantz aurrera egitea, osasunaren eremuan nutrizioa txertatzea eta gizartearen kontzientziazioa egiten dituzte posible, elikadura sistemaren gobernantza modu berriak sustatzearekin batera. Horrela, gizarte antolaketaren eta sektorearen beraren antolaketaren kategoriak erraztu egingo lukete udalerrri mailako proiektuetatik eskualde mailakoetarako jauzia, edo baita Bio-eskualdeen proposamenera ere, EPL-k estrategian txertatu duena azken hori ere.

Agerian geratzen da **eragile eta sektore ezberdinen arteko gobernantza espazio eta eredu berrien premia**. Horiek, modu erabat transbertsanean erantzun ahal izango diete edozein eratako eragileen eskubide eta beharizanei (baserritarrak, gizarte zibila, medikuak, nutrizionistak, hezkuntza eragileak, gurasoen elkarteak, eta abar). Sektoreen arteko (eragile guztien arteko) lankidetzak, erakunde publikoen laguntzarekin; erakunde hauek laguntzaile eta erraztaileak izanik, zuzentzaile rol sendorik gabe. Beraz, eraldaketarako erronka-zutabe garrantzitsua da elikadura sistemaren baitako eragileekin topaguneak sortzea, ekoizleen elkarteak barne.

Ekintza planen garapenerako lege marko berriaren garapena deigarria da. **Behin baino gehiagotan eta dimentsio ezberdinetan aipatu dira osasun eta higiene baldintzak malgutzeko legedia osatzeko premia**, eta hurbileko elikagaien salmentari dagokiona, zuzeneko

salmentaren dekretua bukatzeko premiarekin batera. Azkenean beharizan hau 11. ekintza planean jasota geratu da, baina, aipatu bezala, beste dimentsio eta erronka batzuetan ere aipatu den beharizana da (adibidez 7. eta 8. erronketan). Edozein kasutan, beste gai legislatibo garrantzitsu batzuk ere identifikatu dira; NPBr lotuak (12. erronka), ekoizpenerako lurren babesari dagokiona (8. Erronka), edota osasun eremuan dietistak eta nutrizionistak txertatzearena (5. erronka). Honek erakusten du ikerketa eta berrikuntza lan sakonaren beharizana dagoela, elikadura sistema iraunkortasunerantz bideratzeko. Orokorrean, elikadura sistema iraunkorreranzko transtizioa egiteko, garrantzitsua da borondate politikoa izatea, eta beharrezkoa da araudi loteslea garatzea. Izan ere, araudi baten bidez finkatu gabe geratzen diren neurriak arrisku handiagoa dute bertan behera galtzeko.

Azkenik, nabarmendu nahiko genituzkeen gai hauen artean dago **prozesu honen hasieran koordinazio taldeak transbertsal modura proposatu zituen hiru dimentsioek izan duten agerpen urria** (Generoa, Gazteria eta Kultura-Harremak ereduak). Zentzu honetan, parte hartu duten antolakundeek bai aipatu dute elikaduraren kultura berri baten beharizana, baita “gauza batzuk alde batera uztearen kultura” ere, baina ez da gehiago sakondu, jakiteko zelan berri dezagun ildo horretaz, eta ea horretarako gizarte antolakunde berrietarako erreferentziak zeintzuk izan daitezkeen. Era berean, Generoaren eta Gazteriaren dimentsioei lotutako gaiak ez dira ia zehaztuta ere agertzen: 6. planean, arrantzan emakumeek izan duten rol garrantzitsuaren ikusarazpena, eta proposamenean erreleboa eta formakuntza aipatzen direnetan; baina estrategia bera eraikitzerakoan dimentsio horiek protagonista modura txertatu gabe. Horrela, **hiru dimentsio**

horiek modu zehatzean ez seinalatzea bera, bada emaitza bat, eta eredu inklusibo eta intersektionalagoak sortzeko zailtasunak ditugula adieraziko luke.

Zentzu horretan, nabarmendu behar da saioetan agertu ez den alderdi bat “elikadura eskubidea” izan dela. Paradigma berriak eraikitzeaz eta ikuspegi sistemiko baten beharraz hitz egiten bada ere, baita lege- eta arau-aldaketek ere, ez da inoiz aipatu eskubideen ikuspegi bat sartzea, zehazki, elikadurarako eskubidea, aztergai dugun gaiari zuzenean lotua. Hori ez da gertakari txiki bat, ikuspegi hori funtsezkoa baita, eta hala adierazten dute nazioarteko zenbait jarraibidek; batez ere, hainbat eragilerekin politikak eraikitzeko espazioak ezarri nahi direnean, non eskubide-subjektuak eta “alderdi interesdun” gisa jardungo duten beste eragile batzuk bildu ahal izango baitira.

EPL-aren kideek sarritan errepikatu zuten ikuspegi desberdinetatik planteatutako erronkei erantzunak emateko, proiektu pilotoak diseinatu eta martxan ipintzeko beharra, eragile desberdinen inplikazioarekin eta nazioarteko erreferentziak eredutzat hartuta. Proiektu horiek maila desberdinetatik abia litezke, beharizanen arabera, garrantzia emanez udalerrri mailako lanari.

Orokorrean, proposamena lehentasunezko ekintza planak zehazteraino iritsi da, eta bere birtualtasuna prozesu osoan mantendu izan den ikuspegi sistemikoan datza, horrek bermatzen baitu osotasunezko proposamena izatea. Baina plan bakoitzari beren-beregi heltzea ere beharrezkoa da, baliabide eta konplexutasun guztiekin. Beraz, hemen proposatu diren 31 ekintza planak abiapuntu bat dira, eta era berean, Ikerketa eta Berrikuntzako beste ekimen batzuekin osatzekoak, agroekologiaren paradigmaren baitan Euskadin 2030erako elikadura sistema iraunkorra sendotu ahal izateko.

07. Azken hausnarketak

EPL-ren emaitzek berrikuntzen bidezko gizarte eraldaketaren premia baieztatzen dute, gizartearen hainbat eremutan, hezkuntzatik hasi eta politiken formulaziorako gobernantzaraino.

Jasotzen joan garenez, erronka nagusiei aurre egiteko, elikadura sistema iraunkorrerako Ikerketa eta Berrikuntza batez ere honako kategorietan kokatzen da: Araudia, Informazioa eta Hezkuntza, Gobernantza eta Gizarte Antolaketa (teknologia biguna). Beharbada, EPL-ren hasieran espero zitekeen teknologia izaera markatua (teknologia gogorra) izango zuen I+B estrategia bat, baina behin eta berriro egin dugu topo berrikuntza sozialarekin ardatz nagusi gisa. Baina hau ez da soilik EPL-n gertatu. Izan ere, **emaitza hauek bat egiten dute Fit4food2030 Think-Tank-ak³⁶ agertutakoarekin 2030erako elikadurari buruzko I+B europar strategiarekin; eta horrek berretsi egiten du hemen aurkeztutako I+B strategiaren koherentzia.**

Beraz, **EPL-ren ondorioz aurkeztu dugun strategiak berrikuntza sozialetik du asko, eta hori paradigma aldaketa premiarekin bat dator.** Aldiz, digitalizazioa ia-ia ez da aipatu ere egin EPL-n. **Hortik ulertzen da hurrengo deialdi publikoen inguruko lehentasunak, Next Generation europar programari lotutakoak barne, berrikuntza sozialari dagokion eremu horretan kokatuak egon beharko dutela, eta ez hainbeste berrikuntza teknologikoan, ezarritako erronkei aurre egin ahal izateko.** Aitzitik, Berreskurapen eta Erresilientziarako Euskal Programaren arabera – Euskadi Next – nolabait elikadura sistemarekin lotuta dauden funtsak (guztiaren %3 inguru), bereziki digitalizaziora bideratuta daude, agroekologiaren eta berrikuntza sozialeko beste parametro batzuen aipamenik gabe.

Administrazio Publikoaren sail guztien erantzukizuna da elikadura sistema iraunkorrerako I+B estrategian lan egitea, erronkei aurre eginez osotasunezko ikuspegi transbertsal eta diziplinartekoa erabilia.

EPL-n parte hartu duten antolakundeekin bat gatoz esaterakoan beharrezkoa dela post-Fit4food EPL aktibo mantentzea, Euskal Autonomia Erkidegoan Elikadura Sistemaren garapen estrategikoan giltzarria den topagune bezala, izaera independentearekin, eta ebaluaziorako, jarraipenerako eta erabaki zein ekintzen gauzapenerako loteslea izango dena. **Ulertzen dugu sortu den espazio hau edo antzekoak berebizikoak direla 2030erako elikadura sistema iraunkorra lortzeko estrategien definizio kolektiboa eta loteslea zehazteko orduan. Uste dugu euskal elikaduraren Think Tank bat sortzea eman beharreko pauso aizangolitzatekeela elikadura politiketan Gobernantza Berrietaranzko berrikuntza bidean. Think Tank diziplinartekoa eta askotarikoa, euskal elikadura sistemaren demokratizazioa bultzatzeko.** Garrantzitsua da hausnarketarako espazio horietan giltzarri diren eragile guztien presentzia erraztea, denek ez baitituzte baliabide berdinak jarduera hauetan parte hartu ahal izateko, eta beraz, alboraketa arriskua gerta daiteke araudi aldaketarako edo politiken sorkuntzarako erabakiak hartzeko orduan.

Gure eskerrik beroena parte hartu duten antolakunde guztiei konpromisoagatik eta sortutako konfidantzagatik; eta bai laborategian, bai haietako bakoitzak bere lekutik euskal elikadura sistema iraunkorreragoa posible egiteko daukaten ikerketa eta berrikuntza bokazioagatik. Eskerrik asko!


³⁶ <https://fit4food2030.eu/eu-think-tank/>

o8. Eranskina

1.Eranskina: Abaraska dimentsioka.

Horiz dauden gelaxka/hexagonoak hirugarren bileran gehitu ziren, abaraskaren balidazio ariketan.

DIMENTSIOA: EKOIZPEN, ENPLEGU ETA ELKARTUKE EREDUAK



DIMENTSIOA: GOBERNANTZA ETA KOMUNITATEEN AHALDUNTZEA



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

